

Enpleguaren Behin-Behinekotasuna Murrizteko 20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Prozesua

Merezimenduen behin betiko balorazioa eta lan-kontratudun finko izateko proposamena

Plaza: Euskara Teknikaria –Administrazio Bereziko Eskalakoa, Azpieskala Teknikoa, Erdi Mailako Teknikarien klasekoa, A2 sailkapen taldekoa–.

Aipatutako plaza lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesua deitu zen iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdien barnean, betiere 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera.

Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko urtarrilaren 19ko saioan, merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak onartuta, erabaki du PATXI XABIER ZABALETA ETXABE proposatzea deialdiaren xede den plaza lan-kontratudun finko gisa betetzeko.

Proposatutako hautagaiak deialdiko oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, gehienez ere 20 egun baliouduneko epean –jakinarazpen hau Oñatiko udalaren WEB orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen zinpeko adierazpena.

2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen zinpeko adierazpena.

(Lehenengo bi puntu horietan jasotako zinpeko aitorpenerako, jakinarazpen honi eransten zaion eredu erabili daiteke)

3. Oinarrien arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, kontratua egin aurretik Oñatiko Udaleko mediku-zerbitzuak behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio.

Aurreko edozein kasutan, uko egiten badu edo ez dela gai edo gaitasun mugatuak dituela ondorioztatzen bada, proposatutako hautagaiak kontratatua izateko eskubideak galduko ditu.

Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen duen bezala, baliogabea izango da probaldia ezartzen duen ituna, baldin eta langileak eginkizun berberak bete baditu aurretik enpresan, edozein kontratazio-modalitatetan.

Beraz, Patxi Xabier Zabaleta Etxabe jaunak ez du probaldia egin beharko.

Oñatin, sinadura elektronikoaren datan

Alkateak

**Proceso de Estabilización derivado de la Ley 20/2021 de Reducción de la
Temporalidad en el Empleo**

Valoración definitiva de méritos y propuesta de acceso a la condición de laboral fijo

Plaza: Técnico/a de Euskera –Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, Clase Técnicos Medios, grupo de clasificación A2–.

El proceso selectivo para la provisión de dicha plaza mediante concurso fue convocado dentro de las convocatorias extraordinarias para la estabilización del empleo temporal de larga duración, de acuerdo con las disposiciones adicionales 6ª y 8ª de la Ley 20/2021.

El Tribunal Calificador, en la sesión del día 19 de enero de 2024, aprobada la valoración definitiva de méritos y calificaciones, ha acordado proponer a PATXI XABIER ZABALETA ETXABE para acceder como laboral fijo a la plaza objeto de la convocatoria

La persona candidata propuesta deberá presentar en el Registro del Ayuntamiento, en el plazo máximo de 20 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución en la página WEB del ayuntamiento de Oñati, la siguiente documentación acreditativa de los requisitos que fueron exigidos en las bases de la convocatoria para participar en el proceso selectivo:

1. Declaración jurada de no hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de cargos públicos ni haber sido separado/a del servicio de la Administración Pública mediante expediente disciplinario.
2. Declaración jurada de no estar incurso/a en alguna de las causas de incompatibilidad previstas en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas.

(Para la declaración jurada recogida en estos dos primeros apartados, se podrá utilizar el modelo que se adjunta a la presente comunicación)

3. Para acreditar que no padece enfermedad o defecto físico o psíquico que impida el normal desempeño de las funciones que le corresponden conforme a las bases, antes de suscribir el contrato, el servicio médico del Ayuntamiento de Oñati le someterá a inspección médica y a las pruebas precisas.

En cualquiera de los casos anteriores, en caso de negarse a ello, o de resultar no apta, o de tener capacidades limitadas, ello supondrá a la persona candidata propuesta la pérdida de sus derechos a ser contratada.

Tal y como establece el artículo 14.1 del Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, será nulo el pacto que establezca un periodo de prueba cuando el trabajador haya ya desempeñado las mismas funciones con anterioridad en la empresa, bajo cualquier modalidad de contratación.

Por tanto, D. Patxi Xabier Zabaleta Etxabe queda exento de realizar el periodo de prueba.

En Oñati, a fecha de la firma electrónica

La Alcaldesa



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Euskara teknikariaren izendapen proposamena

CSV/EKS:

SINA2f61d8b7-ddfc-4639-9958-940b834b0494

Digitalki sinatua:



Izaro Elorza Arregi

Alkatea

Data: 2024/05/09 14:16:33